

Bartzelonan bai jakin



Irudi honekin iragarri dute aurtengo Literaldia. Hamaikagarren edizioa du Bartzelonako euskal literaturaren festibalak.

KONPARATZEA ERE, honetan, beste guztian bezala, katalanak aurretik: han Jordi bada norbait, pentsa, santua ere bai; are gehiago, President ere izan zuten bolarik batez grazia hori zeukan gizontxoak –azkenaldian deklaratu gabeko sos batzuegatik problemetan omen dabil, baina guk horretaz ideia handirik ez, gu tronpeta jotzera etorri gara–. Harira, esandakoa, katalanek traineru batzuk ateratzen dizkigutela, ze hemen, Gorka izena baldin badaukazu –eta horretaz badakigu zer bait, txikitan Iñaki izan nahi genuen arren–, apirilaren 23an ez daukazu ez sosik Suitzan, ez santurik, ez libururik opari, eta arrosak jasotzeko aukera ez dago espektatiben zerrendan ere. Bartzelonan bai jakin.

Eta ez katalanak bakarrik, han dabilzan euskaldunak ere listoxeagoak ote diren pentsatzen hasiak gara, Sant Jordiren buelta honetan urtero antolatzen duten Literaldia festibalak aurten osatu duen programazioa ikusirik. Ez egun bat, ez bi: hilabete osoa letraz josita dauka gure literaturak zazpi probintzietatik kanpo daukan jaialdi garrantzitsuenak. Kataluniako publikoarentzat ezagunak izango diren izenek osatzen dute kartelburua –Fermin Muguruzak *Black is Beltza* nobela grafikoa aurkeztu du 21ean eta Bernardo Atxagak solasaldia izan du Manuel Rivas galiziarrekin Sant

Jordi bezperan–. Aurretik, hamaikagarren edizioaren itxaferoa bota eta berehala, literatura musikaren termino mixetik pasata eskaini duten bi proposamen:

apirilaren 10ean jaialdia inauguratzeko, Bide Ertzean eta Metrokoadroka pasaz ziren Bartzelonatik *Nola belztu zuria* ikuskizunarekin –Joxean Artzeren poemak kantatu eta errezitatu zituzten Euskal Etxean–; eta joan den larunbatean *Gosariak* egitasmoak hartu zuen lekukoa –Gose taldeak Joseba Sarrionandiaren testuekin eta Iñigo Arregi-Juan Luis Goikolea

artista tandemaren lanekin argitaratu du proiektua–.

Pasako da Sant Jordi, baina iraungo du Literaldiak. Hurrengo zitak dira: apirilaren 24ko bertso afaria –Euskal Etxean, 15 eurotan–, maiatzaren 7an egingo den *Pomes perdudes* katalanera itzultitako euskal ipuinen bildumaren aurkezpena; eta azken traka, datorren hilko 8an eta 9an: Iratxe Retolaza EHUKo irakasleak *Euskal komikiaren historia literario baterantz* hitzaldia eskainiko du. Biharamunean Esti Lizaso itzultzaileak eta Danele Sarriugarte idazleak *Erraiak* liburuaren itzulpenari buruzko esplikazioak emango dituzte eta pasarteak irakurri, euskaraz eta katalanez.

Eta guk ez daukagu pisurik Bartzelonan, snif. ■

Literaldia

Noiz: apirilaren 10etik maiatzaren 9ra.

Non: Bartzelona.

Webgunea: literaldia.com

Gorka Bereziartua Mitxelena